

Urrup eta klik



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Duela lau urte, Donostiako udal gobernuaren eratu berriaren, txoko honetan salatu nuen alkatearen hizkuntza politika erdalzaleak goia jo zuela. Hasiera benetan tamalgarria izan zen, hilabete eskasean atzera urrats ugari pilatu baitzuen: euskaraz mintzatzeko gai ez zen arduradun politiko bat aukeratu zuen euskaraz jardutekoa zen sail baterako; euskaraz gaituta ez zeuden udaltzainak eta mugikortasuneko agente mordoa kontratatu zuen (gerora, urte urte errepikatu zen “salbuespena”); toldozainen jantzi berrietan “toldero” idatzi zuen; gaztelania hutsez errotulaturuta agertu ziren udako ikuskizunetako kartelariak eta udal faroletan ekimen pribatu batek kokatutako panelak...

Horiek horrela, aldarrikatu nuen Donostiako Udalak beste kimen bat erakutsi beharko zuela arauak ezartzeko eta euskararen normalizazioaren abiadura bizkortzeko, abian zen euskara plana XX. mendekoa baino XXI. mendekoa izan zedin.

Tira, joan dira lau urte, eta haiekin batera euskal kultura are zokorago baz-

Saiatu gara
ohartarazpenak
proposamenekin
laguntzen, baina
agintaldi amaierara
arte ez diogu
ikusi alkate ustez
euskaltzaleari bat
egiteko asmorik

tertu zuen pandemia bat ere. Agertu zen sator zulo bat, baita osin sakon eta ilun bat ere Santa Klara uhartean, eta handik behera joan ziren euskarazko antzerkiarentzat izan zitezkeen diruak, baita euskarazko hedabideentzako publizitateak ere, komun zulutik behera ur zikinak joaten diren bezala. Bihurritu zuten araudia etxeak egiteko, kosta ahala kosta (jakina), arnagunea itota, baita udal sail oso baten ardura duen

zuzendari euskaraz ez gaitua kontratatzeke ere, edota markesinetako publizitate erdal elebakarrak hamar urteko iraungitze epea izan dezan. Eta pintxokeria eztarriko zuloan trahatu zaigun bezala geratu izan zaigu hitza ahoan hainbat ostatu *noentiendotarretan*...

Saiatu gara ohartarazpenak proposamenekin laguntzen, baina agintaldi amaierara arte, hauteskunde giroan, ez diogu ikusi alkate ustez euskaltzaleari bat egiteko asmorik. Aitatzea ere ez dute merezi udaleko neofrankistek egindako saiakerek euskaldunon hizkuntza eskubideak gutxiesteko, edo bai, ez baitirudi kasualitatea besaulkiei eutsi izana, epaitegiak euskararen aurrebidea oztopatzen hasi diren honetan.

Epealdi berean, hamar puntu egin du gora lanposturako beharrezkoa duten hizkuntza eskakizuna eskuratu duten udaleko langileen kopuruak (%83), eta euskararen erabilera mailari eutsi omen diogu Donostiako kaleetan, ezagutzak hazten jarraitzeaz batera; bada, botila erdi bete-hustuari urrup egin beharko, eta klik. ●

ekologikoa, lurrari lotutako ekoizpena



Euskadiko Nekazaritza eta
Elkaidura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasuna
Landa Garapenerako Europako
Nekazaritza Funtza
European Union's Rural Development

